


txinpart


hautzaro ikastolako aldizkaria 2003 Abendua • 27. zenbakia





AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	11
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	18
GU ERE KAZETARI	23
NAHASTE BORRASTE.....	28



Kaixo neska mutilak!

Dagoeneko ezagutuko nauzue Argitxo iratxoa naiz.

Hemendik aurrera askotan elkar ikusiko dugu.

Txinpartera hurbildu naiz hau esatera:

opor eta Eguberri Zoriontzuak ospa itzazue

beti ere euskaraz!!!

Eguberri On!!!

EREIN TA GERO UZTA BERO

Ikasturte berri bat hasi dugu eta orain ere iaz bezala Haurtzaro ikastolako ikasle izandako hainbat neska-mutilen lana goraiatu nahiko genuke:

Xabier Harreguy: Kooperatzaile moduan joan zen uztailean Senegalera, Eusko Jaurlaritzaren Gazteak Lankide-tzan egitasmoarekin.



Maitane Bergaretxe: Erizain ikasketak egin eta kooperantzaile izan da Marokon.

Izaskun Suberbiola: Itsas zientziak ikasketak egin eta itsasgela elkarteko partaide dugu. Elkarte honen helburua, bi itsasuntziren bitartez itsasoa hurbildu eta ezagutaraztea da.

Alaitz Mendizabal: Enpresa Ekonomiako irakaslea da eta beste lankide batzuekin batera, liburu bat argitaratu du. Liburu hau Enpresa Ekonomiako ikasleek testu edota kontsulta liburu bezala erabili dezakete.

Allende Arnaiz: Diseinu grafikoarekin lotuta ikasketak egin ditu eta orain argazkilaritzaren munduan ari da eta Gipuzkoako argazkilari profesionalaren elkarteak antolatutako lehiaketa irabazi du Eki izeneko argazkiarekin.



I R T E E R A K

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
H.H. ETAPA IRTEERAK			
H.H. 1	Urriak 17a	Bidegorrira	Elkarrekin ibiltzeko arauz ohartaraztea
H.H. 1	Urriak 24a	Bidegorrira	Elkarrekin kalean ibiltzeko ohiturak lantzea
H.H. 1	Urriak 31a	Mendibilgo txarara	Hosto, ezkur, perretxiko... biltzera
H.H. 1	Azaroak 6a	Mendibilgo parkera	Arratsaldea elkarrekin pasatzea
H.H. 1	Azaroak 14a	Herriko plazara	Udaletxeko berritze lanak ikustera
H.H. 2	Irailak 26a	Hondarribiko hondartzara	Udarari bukaera eman eta hondartzaz gozatu
H.H. 2	Urriak 27a	Herrian zehar	Etxe motak behatu
H.H. 2	Azaroak 7a	Iturriotzera	Baserriaren ezaugarriak behatzera
H.H. 2	Azaroak 10a	Txillida-lekura	Bere artelanak ezagutzera
H.H. 3	Azaroak 19a	Hondarribiko aireportura	Hegazkina eta aireportuko instalazioak ikusi
L.H. ETAPA IRTEERAK			
1.- 2. maila	Irailak 23a	Zinemaldira	Ondo pasatzea
1. maila	Azaroak 12a	Luberri museora	Gaiarekin lotutako irteera
1. - 2. maila	Azaroak 13a	Zinera	Ondo pasatzea
1. maila	Azaroak 26a	Sara eta Zugarramurdira	Gaiarekin ikasitakoa bizitzera
2. maila	Irailak 19a	Sorondora	Mendian ibiltzea eta harremanak sendotzea
2. maila	Urriak 17a - 20a	Epaitegira	Informazio biltzea gaia osatzea
2. maila	Azaroak 7a	Santiago Bidera	Erdi Aroan sortutako ohitura ezagutzera
3. maila	Urriak 6-7-8	Arrokaundietara	Mailako ibilaldia egitea
3. maila	Azaroak 24a	Baleiorera	Sagardoaren prozesua ikustea
3. maila	Azaroak 26a	Barinera	Untxitegi bat ezagutzea
3.- 4. maila	Irailak 19a	Gurutzera	Gaztainak biltzea
3.- 4. maila	Irailak 23a	Zinemaldira	Zinemaz gozatzea
4. maila	Urriak 6-7-8	Baratzera	Mailako ibilaldia egitea
4. maila	Azaroak 11a	Torres-eko kobazuloetara	Antzinako aztarnak jarraitzea
4. maila	Azaroak 13a	Liburutegira	Alkatearekin elkarriketa
4. maila	Azaroak 21a	Bianditz - San Antonera	Gaiarekin lotutako ibilaldia
4. maila		Egiar, Anderregi, Arkaleko harkaitzetara	Oiartzun aztertzea



MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
L.H. 3. ETAPA IRTEERAK			
5.maila	Irailaren 17a	Karrika – Ergoienera	Harremanak landu eta elkar ezagutzea
6. maila	Irailaren 16a	Pulliko kaskora	Harremanak sendotzea
5. - 6. maila	Irailaren 22a	Oiartzuni bira ematera (bizikletaz)	Autorik gabeko eguna ospatzea
5. - 6. maila	Irailaren 23a	Donostiara: Zinemaldira	Zinea euskaraz ikustea
5. - 6. maila	Azaroaren 18a	Donostiara	Zinea euskaraz ikusi eta balioak lantzea
5.maila	Azaroaren 19a	Ikaspilota, bailarako topaketara	Pilotan jolastuz disfrutatzea
5.maila	Azaroaren 24a	Txillida-lekura	Plastika: Eskulturak ikustea
5. - 6. maila	Abenduaren 4a	Tolosara	Txotxongilo jaialdia ikustera
DBH. 1. ETAPA IRTEERAK			
1. 2. maila	Irailaren 12a	Oielekura	Hasiera egunaren jarraipena egitea
1. maila	Urriaren 28a	IRUÑEARA/Planetariumea	N. Zientzietako Izarrei begira unitatea lantzea
2. maila	Urriaren 28a	Legazpi/ Zerainera	Burdinola, haizeola eta zerrategia bisitatzea
DBH. 2. ETAPA IRTEERAK			
3. 4. maila	Irailak 15a	Eskax-Artikutza	Zikloaren topaketa eginez, mendizaletasuna eta ingurua ezagutzea
4. maila	Urriak 2a - 3a	Piraguan ibiltzera-Bidasoara	Naturarekin bat eginez kirol alternatiboa ezagutzea
4. maila	Urriak 24a	Herri kirolak-Errenteriara	Herri kirolen praktika bultzatzea
4. maila	Azaroak 24a	Pelikula ikustera-Niessenera	Osasunaren prebentziorako programa lantzea
3. maila	Abenduak 2a - 9a	Eskalada egitera	Mendizaletasuna bultzatzea
3. maila	Abenduak 11a	Kutxa Espaziora eta Parke Teknologikora	Etxeko kimika lantzea eta teknologiak ezagutzea
4. maila	Abenduak 11a	Bermeora (Arrantza museoa) eta Guggenheimera	Hautazko gaien helburuak sendotzea: bidegintza eta euskal kultura





BAILARAKO IKASPILOTA TOPAKETA

"Txapeldunak, txapeldunak, oe-oe-oe!" Horrelaxe irten ziren gure 5. mailako ikasleak Madalensoro pilotalekutik azaroaren 19an. Goiz osoa pasatu zuten pilotaren inguruko jokoekin disfrutatzen eta bailarako beste ikastetxetako jendea ezagutzen. Hori gutxi balitz bezala, azkeneko partean egindako lehiaketan irabazle gertatu ziren! Antolatzaileen esanetan, puntuaketa ez zen irabazitako partidetan soilik oinarritu, euskararen erabilerak, animazioak, besteekiko jarrerak ere kontuan hartu zituzten. Otsail aldera egingo diren Gipuzkoako finalerako txartela lortuta dute. Bejondeizuela 5. mailakoei!



MUSIKA KLASIKOA HAURTZARON

Azken urte hauetan, Haurtzaro Ikastolak eta "Gaztetxoek elkarteak" musika klasikoa era ludikoan ezagutzeko aukera eskaintzen die gure ikasleei.

Aurten, 2. zikloko ikasleek izan zuten aukera, XABIER LIZASO piano jole trebea ikusi eta entzuteko. Kontzertua sorpresaz beterikoa izan zen; pentsa ezazue, pianoa Madrildik Haurtzaro ikastolaraino berak bakarrik garraiatu zuen.


Dibertigarria izan zen, ikasleak eta irakasleok primeran pasatu baikenuen, eta didaktikoa izan zen, musika klasikora gerturatu baikintuen.

Harrigarria da, gure ikasleek zein nolako jarrera paregabea azaldu zuten. Arreta, isiltasuna, musikarekiko eta gainerako ikasleekiko begirunea....

Bertan egon ginen irakasleok, zuek, ikasle guztiak zoriondu nahi zaituztegu, eta bide batez, Xabier Lizasoren hitzak helarazi:

Kaixo Lagunak!

Aurten oso gustura egon naiz zuekin. Esan beharra daukat, oso ikasle finak izan zarete eta lehiaketaren emaitza erabakitzea ez dela batere erraza izan. 3. mailako marrazki batzuk jaso ditut, oso politak gainera, eta honexegatik BERDINKETA izan duzuela esan behar dizuet. Zorionak!"





Duela bi udara azaldu zitzaigun mutil hau gure artean. Nabil du izena, eta nola edo hala gure artean ederki moldatzen dela erakutsi digu. Aurretik Gaztela eta Leonen eta Ermuan egon da. Orain, aldiz, Oiartzunen geratuko da urtebete. Hone-la, ikastolan egongo da eta bere hurrengo erronka euskara ikastea izango da. Hasiera bezala, gaztelerako klasean bere burua aurkeztu zigun, eta guk berari galdera batzuk egin genizkion, bera gehiago ezagutzeko.

Erantzunak ahoz eta bere hizkuntzan erantzun zizkigun.

“Ni Nabil Salma naiz eta 12 urte ditut. Saharan jaio nintzen, Laiun izeneko herrian. Nire familia nire gurasoek eta 8 anaia-arrebek osatzen dute, 3 mutilek eta 5 neskak. Mutil alaia eta lotsatia naiz eta lagunekin egotea gustatzen zait”



يحيى يما يلى سفرنتا نيل يليب
 نتا لعميسا بقمسا (8) (3) (5)
 يوليين لمة يقنته

Txinpart: Kaixo

Nabil: Kaixo.

انتا

T: Zer moduz bizi zara Oiartzunen?

N: Ongi. Lagun asko egin ditut eta asko jolasten naiz beraiekin

بنا فبا يمشا

T: Ikastolan ikusten zaitugu baina zer egiten duzu ikastolatik kanpo?

N: Lagunekin jolasten naiz. Baita ere Play station-en ere bai, Itsaso eta Imanolekin. Ikasi ere egiten dut.

فريب فو كميانتا
 شسا ليمت

سمسا



T: Oso kirolari ona omen zara. Zein da zure kirolik gustukoena?

N: Nire kirolik gustukoenak pilota eta futbola dira.

فيا بيه

T: Eta jateko garaian, zein da zure janari gustukoena?

N: Oilaskoa, xerra eta arrautzak.

فيا بيه

T: Jende askok ezagutzen zaituela esan digute. Zenbat lagun egin dituzu?

N: Asko, entrenamenduetan, ikastolan, kalean, udalekuetan...

بيكا نمة جنبيا فيا مستيحيما

T: Bi udara hemen egon ondoren, zer gustatzen zaizu gehien Oiartzundik?

N: Eguraldia. Udarako eguraldia gustatzen zait.

بيسيرا دوانا

T: Eta zer ezagutu nahi zenuke Oiartzundik?

N: Negua ezagutu nahi dut, elurra egiten duelako eta Gabonak direlako.

كربستيلرن مبرو
يشنا
يشنا بيهنا

T: Mila esker, Nabil, zu hobeto ezagutzeko aukera emateagatik.



Herri kirolak- DBH 4. mailako topaketak

Urriaren 24an topaketa berri batzuetan partaide izan ginen Oreretan. Txinga, Txikorta, Ingudea, ...izan ziren aukeratutako kirolak. Eta sokatira denek parte hartu behar zuten kirola.

Talde giro ederrean egin zen lehiaketa eta denek eman zuten barruan zuten guztia.

Uretan gozatuz

Urriaren 2an eta 3an DBH 4ko ikasleek Bidasoa ibaia ezagutu, gozatu eta probatu zuten.

Endarlatzan abiatu eta Santiagotarrak bitartean, batzuetan ibaiak lagunduta eta besteetan bere aurka indarrak neurtu eta naturarekin bat eginez, paraje paregabe honetan arraunean aritu ziren.




DBH koen ikasketak

PLANETARIUM-a (DBH1): Natur Zientzietako I unitatean, Izarrei begira izenekoan, landutako helburu eta edukiei gainbegirada ematen dio irteera honek. Ikus-entzunezko baliabideek, hain urrutiko eta abstraktu diren kontzeptu eta hitz teknikoak begi eta belarrietara hurbilduz ulerterrazagoak bihurtzen dituzte. Ibilaldi honek gaiari globaltasuna eta borobiltasuna ematen dio.

Ibilaldiak bigarren zati bat badu Gizarte Zientziekin lotua. Gelan baliatu diren mapa eta planoen eza-gupenei erabilpen praktiko bat ematen zaie. Iruñeko planoaren hainbat toki, ikur... interpretatu eta aurrez adierazitako ibilbide batean orientatzen ikasiko dute ikasleek.

MIRANDAOLA eta ZERAIN (DBH2): Legazpiko burdinola eta Zeraingo haizeola eta zerrategi hidraulikoa bisitatzen dira irteera honetan. Teknologia arloa aitzakia hartuta egiten da bera. Bisitaldi hauek DBH1 eta 2. mailan landurikoak uztartzen dituzte. Lehen mailan landutako mekanika atala eta bigarren mailan lantzen ari garen energia. Bertan, energia hidraulikoa mugimendu mekaniko nola bihurtzen den eta argia nola sortzen den ukitzera iristen gara. Bide batez, burdinaren industriak gurean izan duen garrantzia baloratu nahi da.





IPAR HAIZEA

Bertsoaren haizeak Iparretik jo zuen lehengo urriaren 17an Haurtzaro Ikastolan. DBHko I.mailako ikasleek bertsogintza lantzen dute ostiraletan ordu betez. BERTSOZ PLAY izeneko metodologia berriaren bidetik ari dira arlo hau jorratzen. Orain dela 22 urte mar txan jarritako pirrilak pirrika jarraitzen du oraindik ere, eta gero eta abiadura biziagoan, gainera.

Betiko klaseak bizkortzera alde edo, tarteka Andoni Egaña etortzen da ikastolara bere abileziak, ezinak eta trikimailuak ikasle bertsozaleei erakustera eta irakastera. Lehengo ostiralean, berriz, Iparraldeko hiru bertsolari gazte izan ziren ikastolan bertsotan bat-batean ikasleen aurrean. **Mizel Mateo**, Bidarraikoa; **Patxi Iriart**, Hiriburukoa eta **Gillen Hiribarren**, Itsasukoa. 15 urteko mutilak hirurak.



Karlos Aizpurua oiartzuarra izan zen hiru bertsolariekin batera ikastolan, eta honen gidaritzapean aritu ziren. Karlos ikastolako ikasle ohia da, bertako bertso eskolan hazia eta hezia. Egun Iparraldeko bertsolaritzaren bultzatzaileetako bat da Karlos. Bertako bertso eskoletako irakasle, koordinatzaile, dinamizatzaile eta arduradunetako bat.

Oso saio entretenigarria eskaini zuten Hiru bertsolari gazteok. Gaiak, oinak eta puntuak ikasleek jarri zizkieten, eta polita izan zen bi euskalkien arteko topara. Patxik, Gillenek eta Mizelek arreta handiz entzuten bazituzten oiartzuarren gaiak, pentsatu zer nola egon ziren bertsozale gaztetxoak Iparraldekoen bertsoak entzuten. Arreta handiz, derrigorrez. Eta halere, hitz askoren esanahia bertsoaren ondoren galdetu behar bertsolariei.



Hona bertsotan entzundako zenbait Iparraldeko hitz eta hauen esanahia.

Ardura: askotan / sarri: gero / haizu izan: zilegi izan / pottak: muxuak... Baina beste hitz eta esamolde askotan, Iparraldekoen hizkerak Oiartzungo hizkerarekin antz handia duela ohartu ziren ikastolako ikasleak.

Bertsoa, euskara, euskalkiak, harremanak... Zenbat helburu eder eta arrazoi pisuzko, era horretako ekimenak berriro era egitera animatzeko.

A. Kazabon



HAURTZARO IKASTOLARA IRITSI GARA ETA HEMEN GABILTZA POZIK JOLASEAN ETA LANEAN.

BEGIRA ZER EGITEN DUGUN! 3 URTEKO IKASLEAK



TXILLIDA ETA BERE AMETSA

HONEZ KERO JAKINGO DUZUE IKASTEN DITUGUN GAUZEN ARTEAN ZENBAIT ARTISTA ETA BEREN ARTELANAK EZAGUTZEN DITUGULA.

ORAINGOAN TXILLIDAREN TXANDA TOKATU ZAIGU.

EGUN BATEAN IRAKASLEAK BERE ARGAZKI ETA ARTELAN BAT AURKEZTU ZIGUN ETA BERE LAN GEHIAGO MUSEO BATEAN ZEUDELA KONTATU ZIGUN.

SEGIDAN ISTORIO BAT KONTATU ONDOREN, GUK IMAJINATU ETA MARRAZTU BEHAR IZAN GENUEN TXILLIDA-LEKU NOLAKOA ZEN.



HARA JOAN GINENEAN... A ZE SORPRESA! ADIERAZI ZIGUTEN, TXILLIDAK, BERE AMETS BATEAN, GU GEUNDEN LEKUAN IMAJINATU ZITUELA BERE ESKULTURAK.

HANTXE IBILI GINEN, TXILLIDAK NAHI ZUEN BEZALA, ESKULTURA ARTEAN: UKITUZ, USAINDUZ, ENTZUNEZ, INGURATUZ... ETA GOZATUZ!

ETA GUTAKO BATZUK AITATXO ETA AMATXOREKIN BERRIRO ITZULTZEKO GOGOAREKIN GERATU GINEN.

4 URTEKO IKASLEAK



UDAZKENAK EURIA ETA
HAIZEA EKARRI DIZKIGU
BAINA BAITA GAUZA
ONAK ERE:
PERRETIXIKOAK, ADIBIDEZ.

H.H3KO NESKA-MUTILEK
PERRETIXIKO MOTA ASKO
DAUDELA ERAKUTSI NAHI
IZAN DUGU, ETA
GURASOEN
LAGUNTZAREKIN,
ERAKUSKETA ZORAGARRI
BAT PRESTATU DUGU.



5 URTEKO IKASLEAK

IKASTOLARA ETORTZEKO
JANTZI DUT PARDELA
EURIA ARI ZELAKO
BURUAN TXAPELA
LAN EGITEKO
HARTU DUT TXANELA
ETA GOSALTZEKO
MORTADELA

L.H. I. C GELA



Dinosauroak

DINOSAUROEZ ASKO AL DAKIZU?

GUK, I. MAILAKOEK, ASKO IKASI DUGU ETA OSO GUSTURA, GAINERA.

BEGIRA ZER NOLAKO ERAKUSKETA ANTOLATU GENUEN.

BERTARA GURASO, IRAKASLE, IKASLE ... JENDE ASKO ETORRI ZEN.

I. MAILAKO IKASLEAK



ZIKLOKO IKASKIDE BERRIAK ELKAR EZAGUTZEKO

TOPAKETA

Ikasturtea hasi eta ziklo berria osatzen dugun lagunok elkar ezagutzeko tenorea izan genuen. Horretarako, ekitaldi polit bat egin genuen: Gurutzera egun pasa joan ginen.


Ederki etorri zitzaigun Peio-
ren gonbidapena: bere baserrira
joan gintezkeela esan zigun, gaz-
tainak biltzera. Berehala eran-
tzun genion baiezkoa.

Ikastolatik atera (oinez noski) eta Urkabeko maldatik Gurutzera iritsi ginen. Merezitako hamaiketako egin genuen. Ondoren Koxkotenekoa agurtu eta beren gaztainondoak astindu genituen. Gure poltsatxoak bete eta berriro Gurutzeko frontoi ingurura itzuli ginen. Ura edan, freskatu (sargori baitzegoen), bazkaldu eta jolasteko txolartea ere izan genuen. Pilotan, gordeketan, txirristan...eta abarretan ibili ginen.

Ondoen genbiltzanean motxilak hartu eta bueltatzeko ordua zela esan ziguten irakasleek. Eta horrela, denok elkarrekin ikastolara itzuli ginen.

HURRENGOAN BESTE BAT!!!


2. ZIKLOKOAK: 3. eta 4. mailakoak





EPAITEGIRA BISITA

Ezkantzek egiten dituzte eta bi pertsona hasieratzen
 baziren pake epailak pakeak egiten dituzte. Hala berrak
 ezkontzek egiten dituztenan togo jartzen du.



Ezkantzek egiten dituzte. Bi lagun hasieratzen direnari hantxatzen dira.
 Luis Mari togo jartzen du. Alaitik unia izaten direnari hantxatzen
 dute. 1. unia izaten direnari hantxatzen dute.



SANTIAGOKO BIDEA

Ikastolatik ateraz ginen, autabusa hartuz joan ginen.
 Gurutzean iritsi ginen, gurutzetik Urdabai bidetara eta elizaren
 ondotik parra ginen. Urdabaitik aurrerantzean iburri genituen
 gero Erromatetik zehar eta turrietan herriak eta herriak
 joan genituen. Aurrerantzean bertan eta gero dorretatik
 iburri genituen. Zehar herriak eta herriak zehar,
 atean murrizkiak zehar, turrietatik Muntzaraino
 joan ginen.

2. MAILA.



GURE HERRIA EZAGUTZEN

Aurten, LH 4. mailan, Oiartzun herriari buruzko informazioa biltzen ari gara. Baina gure herriaren historia aztertzen hasi garenean, ia-ia ezer ez dugula ulertzen konturatu gara: liburuxkak, apunteak, internet, bideoak... dena "jitu" baina "a ze roiloa".

"Nori esango diogu pixka bat esplikatzeko, baina, hori bai, modu erraz batean, ezta?"

Bada, gure ikastolako "Geograf@- historiadoreak" zeintzuk diren ikusi ondoren, gure eskaera Jaioneri egin genion.

Esan eta egin. Jaione berehalaxe etorri zitzaigun gelara tramankulu pilo batekin. "Ze moderno" zioen gelako batek hango ordenagailu, pantaila, kable, kanoi, apunteak... ikusi ondoren.



Jaionek gure herriko historiak gauza asko esan zigun, hemen doakizue kontuan hartu genuena:

- Historiaurreko idatzirik ez omen dago (horregatik deitzen zaio historiaurrea), baina bai, ordea, aurkitutako aztarnak: Torresko kabazoluan eta Haitzpitarten, hain zuzen ere.
- Garai hartan animaliak margotzen omen zituzten, horrela erraezago ehizatzeke esperantzarekin, eta hori, Torresko kobazoluan agertutako hegazti baten hezurreen ikus daiteke.
- Historiaren hasieran oiartzuarrak mendian bizi ziren, artzainak ziren.
- Garai hartan inguru honetan bizi zirenak, Baskoiak omen ziren, eta Euskal Herriko zati batean eta Aragoiko zati batean banatzen ziren.
- Erromatarrek III. mende bitartean ibili ziren lurralde hauetan, Arditturriko minak erakarrita. Garai hartakoak ditugu Andrearriagako estela, Feloagako gotorlekua eta galtzadak.
- Arabiarrek ere etorri ziren.
- Ondoren, lehen aipatutako Vasconia erresuma zatitu egin zen eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa sortu ziren. Oiartzun Gipuzkoaren barruan gelditu zen.
- XII. mendean gure herriaren izena lehen aldiz azaltzen da, baina Donostia, Hondarribia, Lezo, Irun, Olereta eta Pasaia barne direlarik.
- XVI. mendean bukaeran, gaur egun ezagutzen den eran, mugatua gelditzen da Oiartzun. Garai hartakoak dira Dorretxeak, babesteko eraikiak (Iturriozkoa).
- Ordu arte, herri xeheak (nekazariak gehienbat) jauntxoentzat lana egiten zuen, baina ondoren, familiarentzat adina ateratzen hasi zen. Horrela sortu ziren lehen gunek: Elizalde eta Iturriotz.
- Hurrengo mendeetan frantsesekin ere borrokatu ziren.
- Bertakoen artean ere izan zituzten gudak, Karlismenak deitutakoak, hain zuzen ere, (Karlós-en aldekoak Isabelinoen aurka). Garai hartakoa dugu Ozentzioko ermita.
- XX. mendean hasten da Oiartzungo aro modernoa gaur egun arte. Mende honetan beste gerra baten ondorioak bizi behar izan zituzten. Geroztik, haranaren behealdean, garapen sozial eta industrial nabarmena izan da.
- Eta gaur egun nola gauden badakizue, ezta?

Zer iruditu zaizue? Oraindik roilo handi xamarra?

Hemendik aurrera, hemen aipatutako zenbait eraikin ikustera joango gara eta seguru oso ondo pasatuko dugula.

LH 4. MAILAKO IKASLEAK




Baratze: nire esperientzia

Nik Baratzen oso ondo pasa dut. Gauza asko pasa dira: diskotekarena, ohean pasa ziren gauzak, txerriarena... Alvaro izeneko mutil lotsagabe batek txerriaren atea ireki, eta txerriak ihes egin zuen. Gero lotarako ikaragarriko zailtasunak eduki nituen; Gorka, Jon eta Markel ez ziren isiltzen.

Tailerretan ibili ginen eta animali askori eman genien jaten; batzuei garagarra eta beste batzuei ogia. Zaldi gainean ere ibili ginen. Zaldiak Eguzki izena zuen, bost urte zituen eta ernari zegoen. Indioilarrari, haserretzen zenean, burua urdina jartzen zitzaion.

Adur Lizasoain. 4. maila.



Nik Baratzen oso ondo pasatu dut. Gainera zaldian ibili nintzen eta juerga asko egin genituen. Lehenengo gauean goizeko hiruretan esnatu nintzen eta ez nuen lo gehiagorik egin.

Animalia pila batekin ibili ginen: behia, astoa, akerra... Eskulan pila bat egin genituen: kandela, ogia..., baina okerrera txerriak eskapatu zenean izan zen. Oraindik gogoratzen naiz nola izena zuen atea ireki zuen mutilak; Alvaro izena zuen.

Andoni Susperregi 4. maila.

Baratzen oso ondo pasa nuen. Lagun bat egin nuen, Ager izenekoa. Gauean juerga ederrak egin genituen. Diskotekan super hiper ondo pasa nuen. Zaldian ibiltzea ere asko gustatu zitzaidan eta ahuntzei janaria ematea ere asko gustatu zitzaidan.


Monitoreak horrela izena zuten: Txarli, Urtza, Koldo, Amaia, Enrike, Leire eta Pedro.

Ethan Egiguren. 4. maila.

Nik oso ondo pasa dut Baratzen, baina momentu batzuetan gaizki pasa dut, batez ere txerriari atea ireki zion pertsonaren erruz.

Niri gehien gustatu zaizkidan tailerrak hauexek izan dira: korta tailerra eta zaldi tailerra. Goizetan futboleko ibiltzen ginen, eta eguerdian, arratsaldean eta gauean ere. Janaria oso goxoa zegoen. Posible izanez gero, berriro joango nintzateke, oso ondo pasa baitut.

Mikel Arrue 4. maila.



Nire ibilaldi hoberena izan da zaldian ibili ginelako eta animali guztiei bazkaria ematen ibili ginelako. Andereño batek ni bezala zuen izena eta oso maja zen, baina haserretzen zenean jenio handia zeukan. Baina hoberena izan zen gauean linternarekin jolasten ibili ginenean.

Dutxatu egin ginenean, hasieran ur hotza ateratzen zen eta nik uste nuen ur hotzarekin dutxatu behar genuela. Niri egun bat bakarrik tokatu zitzaidan gosariko ontziak prestatzea. Sukaldaria oso gaiztoa zen, baina oso ondo egiten zuen bazkaria, oso goxoa zegoen janaria.

Egun batean, denak kanpoan ginela, mutil batek txerriari atea ireki zion, eta Baratzeako monitoreak enteratu zenean txistua jo zuen eta borobil batean jarri gintuen eta esan zuen ea zein izan zen eta esan zuen zein izan zen jakin arte han geldituko ginela lo egiten... eta, azkenean, mutikoak esan zuen bera izan zela.

Hurrengo egunean poltsa preparatu eta etxera joan ginen.

Amaia Sasiain 4. maila.



HAUR TTIKI BAT DUT ETA HAUR-ESKOLAN HASI BEHAR DUT

Ikasturte honen lehenengo hiruhilekoan gaude. "Jadanik hasierako mamuak uxatzen ari dira. Gure zalan-tzak argitzen doaz, gure beldurrak lasaitzen... Ez zaigu iruditzen baina pauso zail bat eman dugu: gure haurra haur-eskolan hasi dugu".

Hau esanez aritu zaiguna gure gelako guraso bat da. Haurra ttikia du, 4 hilabetekoa. Guraso batentzat jaio berria. Erabaki zaila hartu behar izan dute, zalan-tzarik gabe eta hori garbi ikusten da jarraian esaten aritu den guztiarekin. Bere baitan behin eta berriro hausnartutako egoera azaltzen digu:

"Alde batetik, entzuten dugu oso ongi daudela haur-eskolak, haurrei komeni zaiela txiki-txikitatik sozializatzea eta gauza asko ikasten dutela bere adineko haurrekin jolastuz eta abar. Beste aldetik irakasle edo hezitzaileei begira saiatzen zara zerbait jakiten eta esaten dizute halakok edo beste hark asko balio duela haurrekin, esperientzia handia dutela, ongi daudela.... Eta ideia hauetaz baliaturik etorkizuneko planak egiten hasten zara: Nik haur bat izaten dudanean, hau eta hau egingo dut, haur-eskolara eramango dut eta ongi. Hot-hotzean pentsatuta, gauzak argi xamar dituzu, baina momentua iristen denean konturatzen zara zeinen erraz esaten zenituen gauza haiek, benetan zertaz ari zinen asko konturatu gabe. Haur bat eskutan izan arte ez dakizu ongi zure barruan zer sentimendu mugituko diren, eta egin asmo zenuena ez da uste zenuen bezain erraza".

Bikote bat guraso egiteko bidean dagoenean, haur hori amatxoren sabelean pizten denean... indar handiko sentimendu berri bat jaiotzen da, eta erraza da ulertzea guraso honek bere buruarekin duen borroka.

Jaio berri den haurra, gurasoek lehenengo aldiz besoetan hartzen dutenean, gauza asko, sentimendu berri asko azaltzen dira, denak pilatuak, denak nahastuak, ikaragarri bihurtu arte. Maitasuna da, ardura, zirrara... Zer ote dago mundu honetan seme-alabak baino gehiago maitatzen denik?

Neurri batean, adin guztiek badute kezka bat eskolatze garaia iristen denean, baina hilabetetako haur bat haur-eskolara eramaten denean, pauso berezia da. Gauza asko mugitzen zaie barrutik gurasoei. Haurra beste etxe batera eraman behar izateak zerbait garrantzitsua galduko duten sentsazioa sorrazten die. Haurrak haur-eskolan jan behar du, han lo egin,



jolastu ere bai, eta gurasoen eginkizunak konpartitzen ikasi arte, kosta egiten da. Gurasoen eginkizunak eta ilusioak, zeren etxean gure haurrari gela polit bat pres-tatu diogu, bere erritmoa jarraitzen dugu gure bizitza moldatuz eta momentu hunkigarriak bizitzen ari gara.

Ez dugu ahaztu behar aitaxok edo amatxok, kasu gehienetan amatxok, lanera itzuli behar izaten duela eta lehenengo egunak gogorrek egiten zaizkiola bati baino gehiagori, eta nahiz eta batzuk besteak baino lasaiago azaltzen diren, orokorrean sentimendu berezi bat daukate barruan guztiek.

Gauza asko dituzte hezitzaileari esateko, eta hezitzaileak beraiei kontatzeko ere bai. Lan garrantzitsua daukagu elkarrekin egiteko. Gurasoek gure eskuan uzten dute gehien maite duten **balio handiko pertsona ttiki bat**, eta hori ikuste hutsa nahiko arrazoia da guk errespetu osoz eta ardura osoz jokatzeko.

Zeinen lan polita egin dezakegun gurasoen eta hezitzaileen artean; zenbat gauza eman diezaiokegun bata besteari! Haurraren heziketak zutabe garrantzitsuak ditu: gurasoak eta hezitzaileak. Zutabe sendo horiekin asko irabaziko dute gure haur ttikiek.

Mila esker guregan konfiantza jarri duzuen guraso guztiei! Gurekin ditugu Ander, Lander, Mirabela, Julen, Lore eta Udane. Animo!, ikasturtea aurrera doa.

Beste guraso asko eta askorekin gertatzen zaigun bezala, zuekin ere geldituko zaigu betirako adiskidetasuna.

Koikile Arrubarrena.

(Haurtzaro Ttikin, 0-1 taldeko irakasle/hezitzailea)



GELETAKO GURASO ORDEZKARIEN TOPAKETA

Joan den azaroaren 6an **Geletako Guraso Ordezkarien topaketa** egin genuen ikastolako gela nagusian. Bertan bildutako-
ok, 60 guraso-ordezkari-
dagozkien **funtzio eta eginkizunak landu geni-
tuen**, besteak beste, gelako kezka eta ekimenak jasotzea, Kontseilu Erretoreko gurasoekin elkarlanean aritzea eta antolatzen diren bileretara gelako gurasoen iritzia nahiz aportazioen transmitailea izatea.



Era berean, aurreko eginkizun horiek betetzearen, gela bakoitzeko gurasoei honen berri ematea eta aukeratu-
tako gela horretako guraso-ordezkarien datuak zabaltzea bidezkoztat jo genuen, **elkar ezagutza eta komunikazio-hartuemanak errazteko**.

Interes handia sortu zuten topaketa honetan jorratutako gaiak: autobus garraio eta jangelaren erabilpena, ikastolako aparkalekua, eta guraso bileretan euskararen eta gaztelaniaren erabilpena. Esperientzi hau martxan jartzearekin batera eta gurasoengandik aportazioak jasoaz, zehaztuko dira hurrengo urratsak.

Guzti honen arabera, **hona hemen, zuen gelako kezka, zalantza eta argibideak jasotzeko prest dituzuen gelako guraso-ordezkarien datuak:**

Oiartzun, 2003ko azaroaren 24an
Kontseilu Erretoreko Guraso ordezkariak

2003 / 2004 HAURTZARO IKASTOLA GELETAKO GURASO-ORDEZKARIAK

Maila eta Irakasleak	Gela	Guraso-ordezkariak	Maila eta Irakasleak	Gela	Guraso-ordezkariak
HAUR HEZKUNTZA (3)			HAUR HEZKUNTZA (4)		
ARANTZA Madariaga	3.A	OLGA Posse MAIKA Menbiburu	JAIONE Irigorri	4.A	ALAITZ Erostarbe XANTI Suarez
LIDE Martiarena	3.B	TXARO Etxeberria ARANTXA Mujika	KARMELE Etxebeste	4.B	KRISTINA Brit ITZIAR Elizondo
ITZIAR Muguruza	3.C	AINHOA Oiartzun ANE Beristain	SORKUNDE Lekuona	4.C	ITZIAR Landa IÑAKI Irastorza



Maila eta Irakasleak	Gela	Guraso-ordezakariak	Maila eta Irakasleak	Gela	Guraso-ordezakariak
HAUR HEZKUNTZA (5)			LEHEN HEZKUNTZA (5)		
ELI Etxeberria	5.A	MARIAN Gallardo IOSUNE Larrañaga	ELIAS Arizmendi	5.A	SARA Acosta IDOIA Rekalde
ITZIAR Lekuona	5.B	AINHOA Oiarzun ANE Beristain	KORO Uria	5.B	KOLDE Oiarzun BEGOÑA Artetxe
ITZIAR Arbelaiz	5.C	KORO Martinez JERU Jimeno	LEHEN HEZKUNTZA (6)		
LEHEN HEZKUNTZA (1)			ANA Aranburu	6.A	GARBIÑE Astibia PEPI Mitxelena
ARANTZA Lopez	1.A	JESUS Olaizola JAIONE Arbide	MIREN Arruabarrena	6.B	JONE Ormazabal MERTXE Embil
IGONE Urkia	1.B	ESKARNE Irastorza MIREN Aizpurua	BIGARREN HEZK. (1)		
MARILO Zubizarreta	1.C	ESKARNE Darceles IDOIA Etxebeste	MARIBI Alonso	1.A	ELENA Cano BEATRIZ Garbizu
LEHEN HEZKUNTZA (2)			JOSU Arotzena	1.B	JOSU Makuso EZTI Irigorri
M. LUISA Irastorza	2.A	AGURTZANE Lekuona YOLANDA Alkorta	BIGARREN HEZK. (2)		
INMA Iturria	2.B	ARRATE Gil KARMELE Abarquero	AGURTZANE Zubizarreta	2.A	PAKI Garcia ITZIAR Bagues
LEHEN HEZKUNTZA (3)			MAITERE Olanga	2.B	ELENA Ibañez BELEN Lardi
ITZIAR Burugain	3.A	MARTA Thalamas KORO MARTINEZ	JOSUNE Saizar	2.C	MARIA ISABEL Otaegi PILI Lekuona
PEPI Arruabarrena	3.B	ROCIO Bravo PATXI Alkain	BIGARREN HEZK. (3)		
LEHEN HEZKUNTZA (4)			RAMON Gorrotxategi	3.A	(hutsik) (hutsik)
BEÑAR Kazabon	4.A	JUANA M ^a Otaegi ITZIAR Sarasola	MADALEN Usabiaga	3.B	JOSE MANUEL Etxabe MARIBEL Lopez
ANA Gelbentzu	4.B	KLEMENTE Arrue YOLANDA LZ DE Luzuriaga	BIGARREN HEZK. (4)		
			NEREA Loiarte	4.A	BENINTZE Arbide GEMA Toledo
			KONTXI Begiristain	4.B	ARANTXA Mitxelena (hutsik)

El pasado 6 de noviembre celebramos en el salón de actos de la Ikastola, el **Encuentro de Madres y Padres Responsables de Aulas**. En ese encuentro **concretamos las funciones** de las/os 60 representantes de aula: recoger las inquietudes e iniciativas del aula, coordinar las aportaciones con las/os madres y padres del Consejo Rector y actuar de transmisor de las opiniones y aportaciones recogidas en el aula para exponerlas en las reuniones en que participa.

En el mismo encuentro se abordaron también estas cuestiones: el transporte escolar y el comedor; el aparcamiento de la ikastola y la utilización del euskara y castellano en las reuniones de madres/padres. Finalmente y con el fin de **favorecer la comunicación-relación y la canalización de las inquietudes, dudas y aclaraciones** que puedan surgir en el aula, se aportan los datos de todas/os las/os representantes.



Ikastolak urteko Batzar Nagusia azaroaren 21ean ospatu zuen arratsaldeko 18:00etan. Batzarrera bertako langile eta gurasoak etorri ziren, baita herriko alkatea den Martin Beramendi ere.

Arantza Manterola, lehendakariak, batzarra zabaldu zuen. Ondoren ikastolako zuzendariak eta administrariak bere gaiak aurkeztu zituzten. LOCE, Ikaswin eta gurasoen parte-hartzea gaiak ere aurkeztu ziren, galde-erantzunen txanda ireki aurretik.

Nagusiki, hiru gai landu ziren Batzar Nagusiko azken atal honetan:


- Lehendabizikoa, Hizkuntza proiektua eta Euskaraz Bizi.
- Bigarrena, eraikuntzan egiten ari diren eta egingo diren lanak.
- Amaiera emateko azkeneko gaia **“Udalarekin harremanak”** deiturikoa izan zen. Puntu honetan, Lehendakariak argitu zituen bildutako udalbatza berriarekin eman diren elkarrizketak, zein izan diren ikastolaren planteamenduak eta planteamendu hauekiko jaso diren erantzunak.

Galde-erantzunen txanda ireki zen eta bertan partehartze ona izan zen.

Lehendakariak bilera bukatutzat eman ondoren, bertaratutako guztiekin lunch eder bat dastatzeko aukera izan zen.



GURASOEN PARTAIDETZA, ESKERTZEKO BENETAN !!



Guraso batzuk egindako lanari esker, gelan bertan hainbat perretxiko mota aztertu ahal izan ditugu.

Berrogei perretxiko mota ezagutu eta izendatu ditugu, bakoitzari bere izenak jarriz. Horretarako, taldeka antolatu eta beraiek ekarritako liburuetan ikerketa-lana eginez, aztertu ondoren, karteltxoetan mota bakoitzari bere izena jarri digu.

Horietako askok izen arraroak zituzten. Zenbait gauza bitxiak egin zaizkigu:

- **Judasen belarria** deitzen den perretxikoa. Txinan gordinik jaten omen dute.
- **Perretxiko beltza**. Erabat beltzarana den perretxikoa.
- **Izar gorria**. Polita eta ikusgarria benetan, baina botatzen duen usaina! A ze kiratsa!

Ea datorren udazkenean gai garen beste hainbeste mota bildu eta sailkatzeko.

Eskerrak lanen gurasoei


3. MAILAKOAK



ALAIA MARTIN ETXEBESTE ETA MADDI SUAREZ KORTARI ENTREBISTA

Alaia Martin Etxebeste Haurtzaro ikastolara datorren ikaslea. 1987 urteko abenduaren 28an jaio zen. Bertsolari hasi zen eta oraindik ere segitzen du.

Maddi Suarez Korta ere Haurtzaro ikastolako ikaslea da. 1987ko urriaren 2an jaio zen. Bera ere bertsolari hasi zen eta oraindik ere jarraitzen du. Alaiarekin batera, eta beren lagun Karmelerekin eskolarteko finalera iritsi ziren.



Zuek orain bertsolari zarete; ikastolatik ateratzean zein asmo duzue? Nola?

M: Ba ikasketetan jarraitzea eta aparte bertsolaritzan, ez dakit.

A: Ba jarraitzea orain bezala bertso eskoletan.

Zenbat urte zenituztela hasi zineten bertso-laritzan?

M: D.B.H. 2an

A: D.B.H. 1ean.

Noizbait irabazi al duzue zerbait bertsotan?

M: Idazten Lexoti txapelketan, eta gero finalera iritsi ginen. Idazten, ipuinetan.

A: Bai, hala da.

M: Gero nik igeriketan.

Bertsolari izan arren, zer gustatuko litzaizueke izatea?

M: Biologia edo ...

A: Ba, gustatuko litzaizuke adibidez idazlea, baina idazle bakarrik izanda ezin da aurrera atera; beraz, beste ikasketen bat.

Zein da zuen bertsolari gustukoena? Eta kirolari gustukoena?

M: Sarasua, adibidez, eredu bat da. Andoni Egaña da beste bat oso ona.

A: Jon Maia oso berezia da eta gero gazteak Amets Arzallus, Sustrai bestea.

M: Kirolaria ez dakit.

A: Nik ere ez.



Noizbait egin al duzue maitasun bertso bat? Eta norbaitentzat?

M: Bai, normalean gairik erabilena edo errazena "maitasuna" gaia izaten da.

A: Bai, hori egia da.

Noizbait bat-bateko bertso saioetan zer esanik gabe geratu al zarete?

A: Ba, bai behin edo bitan bai.

M: Lotsa ikaragarria eta negar egiteko gogoia sentitzen da.

Eta bertsoa bota eta gero, gaizki egin duzula konturatu al zarete noizbait?

A: Bai, eta gainera okerreana da bertsoa botatzen ari zarenean konturatzea.

M: Gainera, ez bazaigu ateratzen isildu egiten gara, eta orduan jendea txaloka hasten da gu animatzeko eta gu urduriago jartzen gara.

Gustatzen al zaizue kirola? Eta bereziki, futbola?

A: Gustatu, gustatu bai, baina ez dut ezer egiten.

M: Ez eta nik ere.

A: Ez.

M: Jolastea eta egitea.

Amets bat betetzea eskainiko balizuekete, zein amets izango litzake?

A: Bizitza osorako ziurtatua edukitzea, alaitasuna.

M: Ez dakit.

Zuek Alaia eta Maddi zarete, baina nola gus-tatuko litzazueke deitzea?

A: Nirea ez den beste edozein.

M: Ez dakit.

Zuek haurrak edukiko bazenituzte zein izen jarriko zenioke neska bati? Eta mutilari?

A: Ez dakit, agian neska bati Araitz.

M: Neskari! Ez dakit.

M: Igor edo Urko mutilari. Niri gutxi entzundako izenak gustatzen zaizkit.

Zeuen burua definitu behar bazenukete, zer jarriko zenukete, lotsatia ala ausarta? Zergatik?

A: Berez, biak lotsatiak gara.

M: Ez dakit.

Gorputzeko zein ataletan jarriko zenukete percing-en bat?

A: Nik sudurrean badaukat, baina aho azpian jarriko nuke.

M: Sudurrean edo aho azpian, baina tripan ere jarriko nuke; hala ere, ez dut jarriko.

Bukatzeko, botako al zenukete bakoitzak betso bat, seigarren mailakoak bertsoetara animatzeko?

Idatzi egingo dugu.

Denok dakigu bertsolaritza

euskararen zati dela.

Badakizue 6.mailan

aukera baduzuela.

Beraz ausartu zaitezte denak,


baita aukera itzela.

Bertsolaritzan adar berriak

sortuko dira horrela.

Doinua: "Amodioa zein den zoroa"

Maialen Arbide – Olaia Azpiroz



Oporretan eskuak zabalik



MAITANE Bergaretxe Bengoetxea 24 urteko neska oiartzuarra, Haurtzaro ikastolako ikasle ohia, hiru hilabetez atzerrian laguntzen jardun duen euskal kooperatzailea da. Marokon eman du aurtengo uda, Nador herriko ospitale batean. Berekin bildu eta galdera hauek egin dizkiogu gure jakin-mina asetzeko. Hona hemen erizain honek kontatu diguna.

Zer nolako esperientzia izan da aurtengo udakoa?

Esperientzia benetan oso ona izan zen, arrunt desberdina. Berriro ere errepikatuko nuke. Gauza ezberdin bat ezagutzeko parada izan dut, eta, horrekin batera, jende ezberdina ezagutzeko aukera.

Deskriba iezaguzu Marokon topatu duzun egoera

Nahiz eta guk pentsatu izugarritzko gosea pasatzen dutela Afrika iparraldeko herri hauetan, ez dute hainbesteko goserik pasatzen. Jatekoa ziurtaua

dute, baina ez dute etorkizunera begira itxaropen handirik, eta hango denek etorri nahi dute Europa aldera, beren bizitza aurrera ateratzeko, nahiz eta bidean lagun asko galdu.

Zeintzuk dira hango gaixotasun nabarrienak?

Meningitisa eta tuberkulosia dira gaixotasun ugariak. Bestalde, uda partean istripu ugari izaten dira, eta lagun askok galtzen dute bizia errepideetan. Izan ere, Europan bizi diren marokoarrak udan Marokora itzultzen dira familia bisitatzera. Horretarako auto handietan itzultzen dira eta, egia esan, eroak bezala ibiltzen dira hango errepide kaxkarretan eta...

Ospitaleetako antolaketa hemengoan antzik ba al du?

Esan bezala, nik ospitale batean jardun nuen, lehenengo UVIko gela bat muntatu genuen, eta gero, gaixoe-kin egin nuen lan bi hilabetez. Han lan egitea zailagoa da, baldintzak ez direlako berak. Nahi dituzu gauzak ongi egin, hemen bezala, baina ezin duzu. Ez dute hemengo ideia garbitasunari buruz. Han zebiltzan katuak pasilloetatik, labezomorroak ere bazeuden.



Bestalde, gaixo bat ospitalean dagoenean, bere familiak arduratu behar du gauza guztiez: gaixoaren janariaz, botikaz... Eta familia askok ez dute hainbeste diru hori dena lortzeko.

Marokon arabieraz hitz egiten da. Zu nola moldatu zara?

Ospitaleko langileekin frantsesez hitz egiten nuen; bezeroekin, ordea, nahiko arazo nuen ulertzeko. Izan ere, arabiera eta bereberea egiten dute. Hitz batzuk ikasi ditut: arabieraz: egun on: salam alekun; nola izena dauzu?: kiss mi tik; bai: uaja; ez: la; bale: safi; eskerrik asko: sukran. Bereberez, berriz, ogia: agron eta ura: amam.

Marokon zinen bitartean, familiarekin, lagunekin... gogoratu al zara?

Egia esateko, hiru hilabete oso azkar pasatzen dira, eta ez dut denborarik izan. Hori bai, bertan ospatu nuen nire urtebetetze eguna, eta berandu arte etxekoek, lagunak ez zidaten deitu, eta kezkatzen hasia nintzen. Hori izan zen momenturik txarrenetakoa.

Bukatzeko, kontaiezaguzu hango bitxikeria bat.

Mila anekdota gertatu zaizkit, baina bitxiena gizon batek bere semearekin ezkontzeko eskatu zidanekoa. Izan ere, hango jendea asko hurbiltzen zitzaigun kanpotarrak ginelako.

DBH 4. maila

Hona hemen Marokori buruzko jakin beharrekoak

Kokapena: Afrikako iparraldeko estatua da

Hiriburua: Rabat

Biztanle kopurua: 26 980 000 marokoar

Eremua: 458730 Km²

Dirua: Dirham marokoarra

Hizkuntza: Arabiera ofiziala. Horrez gain bereberea

Ogibidea: Arrantza, nekazaritza, turismoa, meatzaritza.

Erligioa ofiziala: Islama

Erligioak: %98.7 musulmanak, eta %1,1 kristauak.





FRÍO SOL DE INVIERNO



Hace unas semanas tuvimos la ocasión de oír mencionar el nombre de nuestro pueblo en los medios de comunicación. El porqué no era otro que el rodaje de una película en el palacio Urkabe baita. Gracias a ello, las puertas del palacio se abrieron para los vecinos de Oiartzun, aunque nosotr@s como estábamos en la ikastola no tuvimos oportunidad de visitarlo.

La película se llama **Frío sol de invierno** y está enmarcada en el drama social. Es una película que apuesta por un público que busca y prefiere un cine de calidad, riguroso y con una producción cuidada.

La película pretende acercarnos a un grupo de personajes que rozan la marginalidad. Trata sobre Adrián, un joven de veinticinco años, de familia adinerada y huérfano de madre que recibe el alta médica en el sanatorio psiquiátrico donde ingresa periódicamente. Esa misma mañana, el abogado de su padre le comunica la intención de éste: abandonar su ciudad y rehacer su vida.

El equipo que ha realizado esta producción es el siguiente:

- ♦ **PABLO MALO:** Guionista y director. Nacido en Donostia es realizador de muchas películas que le han llevado a ganar varios premios e incluso a estar nominado a los Premios Goya en el año 2002 con la película "Anjé, la leyenda del Pirineo".
- ♦ **LUIS GOYA:** Productor de la película. Ha producido varios documentales y largometrajes de ficción. Uno de los documentales ha sido grabado en Oiartzun, en las minas de Arditurri.
- ♦ **UNAX UGALDE, MARISA PAREDES:** Son los protagonistas de la película. Actores de nombrado eco en el mundo de la farándula.
- ♦ **JAVIER PEREIRA, RAQUEL PÉREZ, MARTA ETURA, ANDRÉS GERTRUDIS, IÑAKE IRAS-TORZA, JORGE CARRERO:** son otros de los personajes que aparecen en el film.

IRAIA MORENO ETA GORKA ZABALETA



Laburpen tentatzailea

Izenburua: Hiru lagun

Idazlea: Jesus Lukas


Argitaletxea: Elkar


ARGUMENTUA


Udazken guztietan bezala, Enara, Beltxarga eta Kulixka Euskal Herrian elkartu dira. Beltxarga jaunak esaten die kai deportiboa egin behar dutela bertan. Horren eraginez, bakoitzak istorio bat kontatzen du: Kulixkak gizakiaren sorrera, Beltxargak bere ahalmen galdua eta Enarak enaren eta gizakien arteko laguntasuna nola sortu zen. Nola bukatuko ote da dena?

IRAKURRI, MEREZI DU.

Maialen Etxeberria







Donibane Garazi





Herri hau garai batean Behe Nafarroako hiriburua izan zen eta, betidanik, Donejakueren bidea hasi nahi izan dutenen lehen urratsa izan da. Gaur egun turismoarekin oso lotua dago.

Egun batez denok erromes izan gaitezke herri xarmant honetan. Horretarako St Jacques-en atetik sartu eta alde zaharra zeharkatzen duen kale bakarra jarraitu behar dugu, Citadelle kalea. Kale honen bukaeran Zubi Zaharra gurutzatuko dugu, Nive ibaiaren gainetik, Elizako kaletik jarraitzeko Nafarroako ateraino. Bertan, erromesen ospitale zaharra eta Jassu

Etxea aurkituko ditugu. Azken honetan Nafarroako santu famatu baten familiako oroimenak gordetzen dira: San Frantzisko Xabierrenak.

Hemendik Rondako bidera atera gaitezke eta Citadellen bukatu. Honen gailurrean berezko behatoki bat aurkituko dugu, inguruko paisaiaren lasaigarritasunez gozatzeko.

XVIII. mendeko eraikuntzaz eta denda txikiez betetako kale bat zeharkatu behar dugu, Espainiako atea iraganez, erromesen antzera Donibane Garazi uzteko eta Donejakueren bidea jarraitzeko.



Nola iritsi: Iruñetik 73 km-ra eta Hendaiatik 79 km-ra aurkitzen da. Iruñetik Orreagara iritsi eta muga zeharkatu ondoren, 28 km-ra dago Donibane Garazi. Hendaiatik, Baionara eta bertatik Cambo-les-bains arte joan behar da. D-918 bidea jarraitu eta Donibane Garazin bukatzen da.

Argibide gehiago jakin nahi izanez gero hau da bertako turismo bulegoaren telefonoa eta helbide elektronikoa: **05 59 37 01 01**.
www.terre-basque.com.



ONGI PASA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa

zuri esker
gracias a ti



"la Caixa"

"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA



ETXE ONENAK, S.A.

Bizitegi Sustapena

MENDIBIL BERRI kalitate handiko etxeak eraikitzen

Plaza de Guipúzcoa 2-3º dcha. • 20004 Donostia • ☎ 943 42 95 21 • Fax 943 43 02 19



Biok ETXEGINTZA S.L.

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

construcciones

ARABOLAZA S.L.

Berriztatze lanak

Casa Antsillas Berri (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Hotel LINTZIRIN s.a.



☎ 943 49 20 00 • Fax 943 49 25 04

CTRA. MADRID - IRUN KM. 469 • e-mail: lintziri@adegi.es
OIARTZUN - GIPUZKOA



TAJO

Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES

NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



Alcampo

OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



A M E N A B A R

AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN MERKATARITZA ZENTRUA